

Gaitasunen ebaluazioa

1.gaia

Irakurri eta erantzun.

Gaur Bakearen Nazioarteko Eguna da. Uste da aurten Europa osoko ikastetxeetako 179.835.000 ikaslek ospatuko dutela.



• Erreparatu Bakearen Eguna ospatzen duten ikasleen kopuruari eta erantzun.

a) Zer zifra da hamar milioikoa?

b) Zer posiziotan dago 1 zifra?

c) Zer zifra da milioikoa?

• Hautatu aukera hauetako bat eta markatu gurutze batez aurten Bakearen Nazioarteko Eguna ospatuko duten ikasleen kopurua.

☐ 1 E milioiko + 7 H milioiko + 9 milioiko + 8 EM + 3 HM + 5 M

☐ Ehun eta hirurogeita hemeretzi milioi eta zortziehun mila.

☐ 100.000.000 + 70.000.000 + 9.000.000 + 80.000 + 3.000 + 500

☐ Ehun eta hirurogeita hemeretzi milioi zortziehun eta hogeita hamabost mila.

Pentsatu eta erantzun.

Hauek dira zenbait urtetan Bakearen Eguna ospatu duten ikasleen kopuruak.

170.650.000 171.499.000 172.000.000 171.800.000 170.099.000

- Ordenatu Bakearen Eguna ospatu duten ikasleen kopuruak handienetik txikienera.

--	--	--	--	--

- Egin eragiketak eta kalkulatu zenbat ikaslek ospatu zuten iaz Bakearen Nazioarteko Eguna ikasgela bakoitzean.

6.A $3 \times (2 + 7) - 2 =$

5.A $12 - 8 : 2 + 4 \times 4 =$

4.A $30 - 2 \times 3 - 6 : 3 =$

6.B $12 : 4 + 3 \times 5 + 3 =$

5.B $(3 + 6) \times 4 - 18 : 3 =$

4.B $(12 - 2) \times (8 - 5) =$

- Hiru herritako haurrak elkartu ziren, elkarrekin ospatzeko, eta guztiak 50 eserlekuko autobusetan joan ziren. Lehen herritik, 18 autobus beteta iritsi ziren; bigarrenetik, 16 autobus, bakoitzak 3 eserleku hutsik zituela; eta hirugarrenetik, autobus bat, 5 eserleku hutsik zituela. Guztiak 12 eserlekuko autobus txikitan joan izan balira, zenbat autobus txiki beharko lituzkete?

EMAITZA: